

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren 25/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 23koa. Akatsak zuzentzea abenduaren 30eko 546/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez onetsi baitzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko 2020ko ekitaldiko dirulaguntza deialdia**

2019ko abenduaren 30ean, diputatu nagusiak 546/2019 Foru Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez onetsi baitzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko 2020ko ekitaldiko dirulaguntza deialdia. Ikusi da hutsak daudela foru dekretuaren eranskinean, erabilitako izenei eta beharrezko agiriei dagokienez.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea abenduaren 30eko 546/2019 Foru Dekretuaren eranskinaren 1. artikuluan, honela:

Honako hau dioen lekuan:

“Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian”

Hau esan behar du:

“Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Enklabean”

Bigarrena. Zuzentzea abenduaren 30eko 546/2019 Foru Dekretuaren eranskinaren 3. artikuluko 1) apartatua, honela:

Honako hau dioen lekuan:

“Dirulaguntza hauen erakunde onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoko udal eta kuadrillak (Gasteizko Udala eta horren barruko kuadrilla izan ezik) eta Trebiñuko Konderria”

Hau esan behar du:

“Dirulaguntza hauen erakunde onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoko udal eta kuadrillak (Gasteizko Udala eta horren barruko kuadrilla izan ezik) eta Trebiñuko Enklabea”

Hirugarrena. Zuzentzea abenduaren 30eko 546/2019 Foru Dekretuaren eranskinaren 6. artikuluko e) apartatua, honela:

Honako hau dioen lekuan:

“Egiaztagiria udalerrian edo udalerrietan erroldatutako pertsona kopuruarena, 2020ko urtarrilaren 1ekoa. Egiaztagiri honetan pertsonen nazionalitatea eta sexua agertu behar da”

Hau esan behar du:

“Egiaztagiria, udalerrian edo udalerrietan erroldatutako pertsona kopuruarena, erakundearen idazkariak egina, 2020ko urtarrilaren 1ekoa. Egiaztagiri horretan pertsonen nazionalitatea eta sexua agertu behar da”

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 23a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendaria*

**NEREA MELGOSA VEGA**